

BALIO POPOSAMENA

Noizbait mugikorra bateriarik gabe gelditu al zaizu entxuferik gabeko leku batean? Edota momentu berean ezpainak lehorrak eduki dituzu? Ba ez pentsatu gehio eta *Kaokarga* erosi eta arazo horiek desagertu egingo dira. Gainera, bere tamaino idealagatik edozein lekutara eraman dezakezu trabarik eduki gabe.

Aurkeztutako produktu hau ezpainak hidratatzeko kakao bat da eta gainera, kargadore portatila du, edozein aparato elektronikoko entxuferik gabe kargatzeko, "pendrive" formatua errefentzia bezala hartuta.

Kakaoa osagai ekologikoz osatuta dago, hau da, naturatik ateratako baliabideekin sortua. Gainera, ez ditu ez koloranterik ezta kontserbanterik ere, eta hori gutxi balitz, beganoa da. Hortaz aparte, zapore desberdinekoak aurkitu ditzazkezu, kokotik hasita menta arte. Kakaoaren ontzia plastiko birziklatuz egina dago, kargadorea aldiz, metalezkoa da.



